

H o g e i i d e i a h e z k u n t z a n k u l t u r a r t e k o t a s u n a e r a i k i e t a a r r a z a k e r i a p r e b e n i t z e k o

Sarrera

Gaur egun globaltasunak gure eguneroko bizitzaren parte handi bat determinatzen du eta jatorri kultural ezberdin askotako pertsonekin ezartzen ditugun harremanetan eragin garrantzitsua dauka. Hain garai konplexu honetan berriro pentsatu behar dugu hezkuntzaren zentzua eta hezkuntzaren norabidea kokatu behar dugu gure lehentasunezko helburuen artean, hau da, Delorsek “Hezkuntzak altxor bat gordetzen du” izeneko txostenean definitzen zituen estrategiak: Ikasten, izaten eta elkarbizitzen ikastea.

Internet, garraiobide edo komunikabideen bitartez, inoiz baino arinago zeharkatzen dugun herrixka txiki bat bilakatu da mundua.

Planetako bazter batetik beste batera segundo gutxitan ezartzen ditugun erlazioek, gizarte interkonektatu batekiko harremanak bereizten duen gure existentzia determinatzen

dute baina, aldi berean, inguru hurbilago bateko kideak izaten jarraitzen dugu, inguru hau bizitzan zehar alda badaiteteke ere. Eta hori da kulturarteko eskolako helburuak definitzen dituzten arrazoieta bat, hiritartasun globaleko testuinguruan, hau da, aniztasunaren errespetutik eta giza eskubideen inguruan, komunikatu eta elkarrekin erlazionatzeko kulturarteko estrategia eta gaitasun egokiak ikasle guztiek garatzea ezinbestekoa delako.

Beste alde batetik, gizarte-justiziaren beharrari erantzuna ematen diote Kulturarteko Eskolek, desberdintasunei aurre egiteko jarduera eta konpromiso eraginkorra planteatzen dituztelako. Eremu demokratikotik egonik, sexu, erlijio, gizarte-klase, etnia, kultura, gaitasun ezberdinak edo orientabide sexualarengatik sor daitezkeen diskriminaziozko egoerak eliminatu behar ditugu, ikasle guzti-guztiek eskola-arrakasta lortzeko aukera berdinak edukitzeko behar diren neurri

H o g e i i d e i a h e z k u n t z a n k u l t u r a r t e k o t a s u n a e r a i k i e t a a r r a z a k e r i a p r e b e n i t z e k o

egokiak kudeatuz. Sarbidea bermatzeaz gain, egiturak moldatzea ere eskatzen du horrek, hezkuntza-prozesuan parte-hartze osoa haiei bermatzen dieten programak garatuz.

Hori bakarrik lor daiteke errespetutik, elkarmendekotasunezko mundu honen konplexutasunean aniztasuna aitortzea beharrezkoa delako, eta berdintasunetik, Eskubide Unibertsalen printzipioetan oinarrituta pluralismo demokratikotik konpartitutako kulturaren elaborazio dialektikoak posible izan behar duelako.

Azkenik, arrazismoaren aurkako estrategiak garatzen ditugu kulturarteko eskolan, hezkuntza-elkarte osoak diskriminazioaren kontra adi egon, arrazismo eta xenofobiaren aurka borrokatu eta desberdintasuna, diskriminazioa eta arrazismozko

egoerak betikotzen dituzten egoerak salatzeko konpromisoa har dezan.

Gida hau oso sinplea da bere formatuari dagokionez baina nahiko konplexua bere zentzuari dagokionez. Gure ikas-tetxetara eraman nahi dugun espiritua laburtzen du, hau da, justizia, berdintasuna eta arrazismo eta gizakiaren kontrako edonolako diskriminazioaren aurka dugun konpromisoa defendatzea.

Kulturarteko ikuspuntua hezkuntzan funtsezko printzipio hauen gainean oinarritzen da: berdintasuna aniztasunean, justizia diskriminazioaren aurrean eta desberdintasunerako eskubidea.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Irakasleak **kulturartekotasuna** zer den galdetu digunean ez dut jakin zer erantzun. Hitz arraro bat zen niretzat. Baina nire inguruko pertsonengan pentsatzean zerbait mugitu da nire baitan eta hau ulertarazi dit: badaude jatorri ezberdin asko, mundua ikusi eta ulertzeko ikuspegi asko. Gustu, hizkuntza, interes, esperientzia, janzteko era, hizkera desberdin asko... benetako aukeren arrago bat. Haiei esker asko ikasi, nire egunetako kopuru handi bat konpartitu eta haien gainean nire nortasuna eraikitzen dut.

Nire ustez, gaur egun ikasi eta beste pertsona batzuekin bizitzeko prest ez badaude, aukera ikaragarri bat galtzen ari zara. Eta ez naiz pentsatzen ari eskolan edo institutuan soilik, Internet, zinea, auzoko elkarteak, dendak, bidaiak... horri

guztiari buruz hitz egiten ari naiz. Egungo egunean betebetan bizitzeko erlazionatzen eta, elkarrenganako aitorten eta errespetutik, jende guztiarekin elkarbizitzen ikasi behar da, pertsona guztiok eskubideak ditugula eta sexu, erlijio, gizarte-klase, jatorri etniko, kultura, gaitasun ezberdinak edo orientabide sexualarengatik baztertuta izan ezin garela jakinik.

Beharbada pertsona erromantikoa naiz, baina maistrak kulturarteko eskolarako lema bat asmatzea eskatu digunean haxe idatzi dut:

Aniztasunaren bihotzean guztiok berdinak egiten gaituen justiziaren bandera dardar ari da.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Gaur neska berri bat heldu da institutura. Li du izena eta Txinatik dator. Nire lankide batek eta biok atean bera itxaroten genuen bakarrik ez sentitzeko. Klasean bere hizkuntzaz “ongietorri” esaten zuten kartel batzuk prestatuta genituen. Geroago zuzendariak, tutoreak eta bitartekari batek harrera egin diote bera ezagutzeko eta berari eta bere familiari zentroak nola funtzionatzen duen azaltzeko. Bere ikaskide guztiekin batera ikasketetan arrakastatsuki parte hartu ahal izateko programa bat prestatu dute. Dakien guztia, ikasteko duen aparteko modua, bere beharrak eta bere itxaropenak kontuan harturik, zeharkatu behar duen bidea sinalatzen duen mapa baten antzeko zerbait da.

Abegi-programa horrek laguntza handia ematen dizu ikastetxe berri batera helzen zarenean, arraro ez sentitzeko. Niri gauza bera gertatu zitzaidan lehenengo ikastegunean. Beste Autonomia Erkidego batetik nentorren eta niretzat dena oso arraroa zen. Nire ustez, eskolak edo institutuak leku maitagarri eta ziurrak izan behar dute, hau da, esku hartu, ikasi, elkarrekin bizi eta bizitza osorako baliagarriak izango zaizkizun esperientziak garatzeko lekuak.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Aste honetan, Historia ikasgaiari, benetan interesgarria den lan batean zentratzen ari gara. Beti bezala, taldeka lan egiten ari gara. Gure familien historia aztertu eta azken urteotako gertaerekin erlazionatu behar genuen. Horrela **curriculumak** gure kultura- eta bizi-esperientziaren zati handi bat hartzen du.

Bikoteka, gure amak, aitak edo gurekin bizi diren beste pertsonei elkarrizketak egin dizkiegu etxean, sexu edo, batzutan, jatorrizko kultura ezberdinetako izateagatik oso esperientzia desberdinak izan dituztelako. Jarraian, denborako mapa bat egin eta XX. mendeko gertaerarik garrantzitsuenekin erlazionatu dugu. Hain talde **heterogeneoa** gara ezen gure familien balioa aitortu eta gure errealitatea hobeto ezagutzen lagundu diguten oso istorio desberdinak ezagutzeko aukera izan baitugu.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Gaur arratsaldez **inmigrazio** hitzaren esanahiari buruz mintzatu gara. Munduaren Historia migrazio, bidaiak eta abenturen historia dela pentsatzea gusatzzen zait. Horregatik bere bizitzako momenturen batean edonor migratzaile senti daitekeela uste dut. Bai herrialde batetik bestera, bai bere herrialdearen barruan edo, besterik gabe, leku batetik bestera mugitu delako. Hala ere, horrek ez du esan nahi migratzaileak izan behar dugula betirako. Horregatik, —nongoa zara?— galdetzen didatenean hau erantzuten dut irribarrez: nire bizilekukoa naiz.






Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Hizkuntzako klaserako lan bat egin behar dut nire etorkizunari buruz. Nire amarekin hitz egin dut eta bere garaian emakumeentzako aukera nagusia, ia bakarra, ezkontza zela komentatu dit. Garai horretan ez zen ohikoa neskek ikastea. Horregatik oso harro sentitzen da bere alabak lan eta bizitza propioko etorkizun batekin amets egiten duela ikustean.

Arrazoi askorengatik, baina honengatik ere bai, arrakasta ikasketetan izan nahi dut. Neska-mutil guztiok **aukera berdinak** izan behar ditugu, **arrakastaz ikasteko** eta zer nahi dugun eta gure bizitza nolakoa izango den imajinatzeko gai izateko. Beraz, amets egiteko kapazak bagaude, nahi duguna lortuko dugu.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko




entzutea
errespetua
errespuntua
eraikitzeak
iritziak elkarri
ematea

Klaseak hasi baino lehen asanblada txiki bat egiten dugu kezkatu edo interesatzen zaizkigun gaiari buruz hitz egiteko. Iritziak trukatu, nola gauden adierazi eta **gatazkak era positiboan** konpontzeko momentua da, elkarrekin bizitzeko espazio guztietan bezala, horiek ager baitaitezke. Arau batzuk adostu ditugu, adibidez ikaskideei entzutea euren ikuspuntuak zeintzuk diren ulertzen saiatzeko. Horrela, denon artean, elkarri ulertuz eta enpatiaz elkar errespetatzen lagunduko diguten arauak definitzen ditugu.

Batzuetan “errespetua” guretzat zer den, nola gustatuko litzaiagukeen tratatuta izatea edota gure ustez zer den iraingarria eztabaidatzen dugu. Beste batzuetan gure familien elkarbizitzarako ohiturak aztertzen ditugu, hitzek edo keinuek beti esanahi berbera ez dutelako. Gehienetan, arretaz entzutea nahikoa da arazoak desagerrarazteko. Ituntzen saiatzen gara beti, gure eskubideetan aitortuak sentitzen gareneko espazio komunak eraikitzeko.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Ez duzu inor baino garrantzitsuago sentitu behar, berezia baizik. Norbait zutaz kezkatu, zure gaitasunak eta zure zailtasunak klaseko erritmoa jarraitzeko zeintzuk diren jakin eta beste era batera ikastea proposatu, eta ikasten eta ikasgai batzuk sendotzen irakasten dizkizula dakizunean, indartsuago sentitzen zara. Nola zauden galdetzen badizu, edo ozenki esan berri duzun ideia azpimarratzen badu bere konfiantza eskainiz, segurtasun gehiagoz sentitzen zara. **Banakako arretak** detaile asko eskaintzen dizkizu. Agian horregatik benetan hazten ari zarela konturatzten zara, arrazoi, emozioak eta besteekin harremanetan sartzeko gaitasunetik.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Ikastetxea elkarte osoarentzat irekita dago. Familiek, boluntarioek eta beste profesional batzuek klaseetan parte hartzea lagungarria da **talde malguak** edukitzeko. Horrela, ikasgai zehatz batekin arazoren bat sortzen denean, ez dugu klastetik irten behar: gure zalantzak konpontzen laguntzen digun pertsona baten laguntzaz lan egiten dugu zeregin desberdinetan.

Ikastetxea arratsalde ere irekita dago eta era guztietako jarduera asko proposatu dugu gu haietan parte hartzeko. Indartze-kasetara joaten naiz, baina nire ikaskide baten amak ematen duen arabierako klasea ere gustuko dut.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Nire matematika irakaslea Afrikako bihotzean jaio zen, eta bere herrialdeko izenak harrizko etxea esan nahi du. Oso leku berezi eta ederra dela eta bere senide eta lagun batzuk ikusteko hara askotan itzultzen dela kontatu digu.

Behin, geografia ikasten geundelarik, Afrikatik urruntzen gintuzten kilometroak kalkulatu genituen eta nongoa sentitzen zen, hangoa ala hemengoa, galdegin genion. Segundo batzuetan pentsatu eta gero **nortasun** bakar bat ez zeukala erantzuten zigun. “Leku ezberdin askotakoa izateko zortea dut, eta guzti-guztietan eroso sentitzen naiz. Egia esanda, bizi naizen lekukoa naiz. Nire jaioterrira joaten naizenean, etxean nagoela sentitzen dut. Eta herrialde hau ere nire etxea da”. Nire ustez mugak desagertu egin dira, behintzat niretzat. Munduko hiritarra naiz. Gure egoitza den tokikoak gara, baina ez dugu gure jatorria ahaztu behar. Ezagutu ditudan leku guztietako oroimenak, pertsonak eta esperientziak eramaten ditut nire bihotzean. Beste kulturetatik ikasi eta zu aberasten zaituzten balore eta ezagupenak mailegatzen dizkiezula da bidaiatzeko zorte handia, eta horrela pertsona irekiagoa eta ulertu, elkarriketatu, lagundu, eta bizimodu ezberdinak baloratzeko gaitasun handiagokoa bihurtuz joaten zara.




Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Hizkuntzako irakasleak hogei urte barru nolakoak izango garen idaztea eskatu digu. Geroago klasean aurkeztu dugu. Inés psikologoa izango dela asmatu dut horrela, eta Mohamed ingeniaria, zubiak eraikitzeko. Mauriziok Informatika irakaslea izan nahi du; Lik Medikuntza ikasiko du. Klaudiak, automobilen mekanika ikasi nahi du, abiadura ikaragarri gustatzen zaiolako. Imanolek nekazaria izan nahi du, bere aita bezala. Naimek abokatua izan nahi du, Sarah alkate andrea izango da eta Josebak Nazio Batuetara lan egitera joan nahi du. Jarduera honen dibertigarriena geure burua etorkizunean oso ondo ikusten dugula da, maite ditugun pertsonekin bizitzen, bidaiatzen eta milaka kontu interesgarri egiten.

Gure maistra oso gogotsua denez behin eta berriz zoriondu eta zapladak eta besarkadak eman dizkigu. Gure ametsa errealitate bilakatuko direla ziur dagoela ere esan digu. Guk ikasten jarraitu eta eskola-arrakasta izatea ere oso garrantzitsua dela azaldu digu. **Inor ezin da atzean geratu**, munduak norberaren talentua eta gaitasuna behar dituelako.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Nire mahaiaren gainean lau zatitan tolestutako krema-koloreko paper txiki bat zegoen, eta bere barruan arabieraz idatzitako esaldi bat. Said izeneko ikas-kide batena dela uste dut, baina ez naiz ausartu berari galdetzerara berarekin hitz egiten dudan bakoitzean gorritzen naizelako. Horregatik, irakasle eta liburutegiko hiztegiaren laguntzaz euskaratu ahal izan dugu. Hitzetako bi ezagutzen nituen, nire ikastetxean **hizkuntza guztiak garrantzitsuak direlako**. Gure Elkarte Erkidegoko hizkuntzaz ikasten dugu, baina beste ikaskideen hizkuntzak ere erabili eta ikasten ditugu. Munduan sei eta zortzi mila arteko hizkuntza existitzen dira.

Eta paper horretan Saidek esan zidana, niretzat gordeko dut...!



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Kulturak irekiak dira eta aldatuz

Zenbait egun barru eskolako jaia izango da. Jaiaren menua egiteko sukaldariarekin bildu gara eta gure platerrik gustukoenen zerrenda bat egin dugu. Hain urduri zegoen ezen ilea erabat nahasia baitzeukan. Hasieran arazo bat zirudiena jadanik konponduta dago. Guztion artean plater ezberdin batzuk egingo ditugu. Guraso batzuk etorriko dira berari laguntzeko, eta denon artean tortilla, kus-kusa, sushi, olagarroa, arroza bereiz, marmitakoa eta krema katalana prestatuko dituzte. Horrela den-denok ikasiko dugu beste eskualdeetako janari gozoak prestatzen. Azkenik, gure ukitu pertsonala gehitu eta plater gozo-gozoak egingo ditugu, seguru.

Egoera hori aprobetxatuz, natur zientzietako irakasleak zergatik herrialde eta eskualde bakoitzean era desberdin batean jaten den azaldu digu.

—Kulturaren zati da hori? —Galdetu du Maurziok.

—Bai noski! —erantzun du, artoaren garrantzia Latinoamerikan azaltzen zuen tartean. **Kulturak irekiak direla eta** denbora pasa ahala errealitate berriei moldatzeko **aldatuz doazela** jakitea ere garrantzitsua da. Pentsa ezazue, adibidez, zuen aitona-amonon garaian janzkera zein zen, eta konparatu zuen janzkerarekin. Gauza bera egin daiteke gustatzen zaizuen janariarekin. Ezagutzen ez zenituzten hainbeste plater gozo-gozo. Zein bikaina den, gero, beste kulturetara irekita egotea!



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Ez ginen ados jartzen ikasturteko bidaiaren helmugari buruz. Nork bere iritzia zeukan eta ez zuen amore ematen. Eztabaida biziak izan ondoren bisitatu nahi dugun leku mota eta dirua lortzeko moduari buruzko erabaki garrantzitsu batzuk hartu ditugu. Azkenean taldeka bereziko gara, batzuek ondartzara eta beste batzuek ibilaldi edo museoak bisitatzera joan nahi dutelako.

—Ederto! —esan digu tutoreak. Talde osoak errespetatzen dituen gutxiengo komun batzuk itundu dituzue. Horri **demokrazia** deritzogu, eta **giza eskubideen errespetuan** oinarritzen da. Neska-mutil guztiok aukera berdinak izan dituzue zuen iritzia azaltzeko eta ikuspuntu guztiak onartu dituzue. Azkenean adostasuna lortu duzue, aniztasuna eta aukera ezberdinak errespetatuz. Horri kulturarteko elkarbizitza deritzogu!

Eta ahopeka kantatzen joan da pasabidetik... benetan, nagusiak harrigarriak dira!



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Inor ez da guk espero genuen bezalako. Ondorio horretara heldu nintzen oso jolas dibertigarri batean jolastu eta gero. Horretan Katalunia, Txina, Maroko, Andaluzia, Donimikar Errepublika... eta abarretako pertsonei buruz dugun ideiei buruzko esaldi batzuk bete behar genituen. Esate baterako, Txinako pertsonak oso arretatsu eta zorrotzak direla idatzi dut. Edo Andaluziakoak oso alaiak direla eta abesten dakitela. Jarraian herrialde edo erkidego horretakoa den norbait eskolan bilatu eta gure erantzunak berarekin konparatu behar genituen. Harrigarria da, baina Li ez da inola ere arretatsua, kontrakoa baizik. Eta Josebak, andaluziarra denak, ikaragarri desafinatzen du. Beste pertsonak nola ikusten ditugun mugatzen duten **estereotipo kultural** asko ditugu. Horri esker, sakonki pertsonak eza-gutzeko, iritzi faltsuak abandonatuz, jarrera ireki eta elkarriketatzailera edukitzea garrantzitsua dela konturatu naiz.




Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Kurtso honetan Interneten bidez lan egiten dugu askotan. Informazioa bilatu, ikerketak egin eta taldeka lan egiten dugu. Klase bakoitzak blog bat egin dezakeela bururatu zaio ikasle baten amari. Bertan gure lana eta gure esperientziak kontatu ditzakegu. Gainera, urrun, beste hiri edo herrialdeetan, dauden senideen berriak ere sar ditzakegu. Horrela Klaudiaren amona ezagutu ahal izan dugu. Txaten bidez frijolak eta tortillak egiten irakatsi digu. Juantxoren aitarekin ere hitz egin ahal izan dugu, eta fokek non umetzen duten azaldu digu.

Interneten bidez beste lekuetan dauden pertsonekin **komunikatzea** lortu dugu, mundura irekita dagoen leiho batetik ikasiz eta konpartituz.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Gauzak ez dira beti errazak. Gaur, ikastetxera heldu naizenean, bihotza ukabil batean sartuta geratu zait osasun-zentroko leihoetako beira batzuk apurtuta eta, gainera, etorkinen kontrako pintada itsusi batzuk zeudelako. Amorru bizia eta negar egiteko gogoak sentitu ditut..

Klaseak hasi baino lehen asabladan bildu gara eta gertatutakoaz hitz egin dugu.

—Jarrera **arrazistak** onartezinak dira —hasi da esaten zuzendaria, baina zoritxarrez egon badaude. Diferenteak baino berdinagoak garela eta esperientzia baliotsu asko ikasiz bizikidetzak aberasten gaituela jakitea da garrantzitsuena. Egia esateko, arrazista adierazi edo gizaki bat beste bat baino hobea dela pentsatzeak, bizi- eta adimen-jarrera penagarria edukitzea esan nahi du.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

Ez genuen tristura gure barnean gorde nahi. Osasun-zentroko pintaden ostean, zerbait egin nahi genuen. Horregatik, auzo osoari irekitako jai bat antolatu dugu. Ideia azkeneko kurtsoko ikasleei bururatu zitzaion. Handik gutxira ikastetxeko langile guztiek, familiek, auzoko elkarteek, osasun-zentroak... gurekin bat egin zuten, baita dende ere!

Kurtsu bakoitzean agiri bat idatzi dugu. Arrazismozko eta edozein arrazoiengatik pertsona bat baztertzaren jarrera guztiak **salatu eta horien kontra borrokatzeko partehartze eraginkorra egiteko** konpromisoa hartu dugu denok manifestu horretan.

Intolerantziari aurre egiteko modu asko daude, baina bat ere ez da justizia eta berdintasunean sinestea bezain garrantzitsua. Nire konpromisoa, nire ikaskideena bezala, irmoa da. Giza eskubideetan sinesten duen elkarte bateko kidea izaten laguntzen dit.



Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko

★ **B**eharbada, irakaslea izatera helduko naiz. Horregatik gauza guztietan arreta jartzen dut: Klaseak antolatzeko moduan, inor kanpoan edo atzean geratu gabe; zuzendaritzak, irakasleek, bitartekariak, eta idazkariak ere bai, hau da, eskolari lotutako pertsona guztiek, bizikidetzeta eta errespetuzko giroa egon dadin lan egiteko moduan; familiek liburutegi, jantoki, programazio edo indartze-klaseei laguntza emateko moduan; edo auzoari laguntzeko antolatzen ditugun jardueretan.

Bizitzarako, lanerako eta **gizartean parte hartzeko** gu prestatzearren itsas zabalean nabigatzen duen itsasontzi handi bat bezalakoa da. Guzti-guztiok lagun dezakegu proiektu honetan. Azken finean, proiektu honen eskuetan daude ez bakarrik gure destinoa, gure inguru hiritarrarena ere bai baizik.



Den-denok hartzen dugu parte proiektu honetan
 Bizikidetzeta eta errespetuzko giro ona
 Gure destinoa ez ezik, partaide izango garen hiriko giroa ere horren mendekoa da
 Bizitzarako, lanerako eta gizartean parte-hartzerako prestatzeko helburuarekin.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Ikasle batzuk etorri dira Unibertsitatetik. Nazioarteko ikerketetako talde bateko kideak dira. Haiekin egon gara hitz egiten luzaro haien ikasketei buruz eta beste herrialdeak ezagutzearen garrantziari buruz. Zorte handia dugula esan digute. Nazioarteko zentroak hiritartasunerako laboratoriorik txikiak dira. Bizitza ikusi eta kudeatzeko modu berriak irakasten dizkizuten pertsonekin bizitzen ikastea demokrazia eta giza eskubideen testuinguruan; gatazkak era positiboak kudeatzea; zure gaitasun guztiak garatzeko helburua edukitzea; zure izaera **elkarrizketa eta eskubideen** berdintasunaren ikuspuntutik definitzea...

Hau guztia mundu konplexu eta aldakor honetan bizitzen lagunduko digun ikastaldi baten parte da.

Egunen batean neuk ere beste herrialde batzuetara bidaiatuko dut ikasteko eta neska-mutil guztiok nik izan ditudan aukera berdinak izateko borrokatuko dut.

Hogei ideia hezkuntzan kulturartekotasuna eraiki eta arrazakeria prebenitzeko



Nire ikastetxea **mundura irekita dagoen leku** bat da. Nire destinoaren bila hegan egiteko hegalak eman dizkit. Gauza asko irakatsi dizkit:

- Pertsona, herri eta kultura guztiak errespetatu behar ditugula.
- Giza Eskubideen esparruan egiten badira jarduera guztiak bezain onargarriak direla.
- Giza Eskubideak errespetatzen ez dituzten bidegabeko lege eta egoerei dagokienez adi egon behar dugula.
- Pertsona guztiok eskubide berberak ditugu, non jaio garen garrantzirik izan gabe. Inor ez da besteak baino garrantzitsuagoa eta arrazismo eta diskriminazioaren kontra borrokatzeari ekin behar diogula.
- Gizon-emakume guzti-guztiok aukera berdinak eduki eta bizitzan nahi duguna izateko eskubidea dugula.

H o g e i i d e i a h e z k u n t z a n k u l t u r a r t e k o t a s u n a e r a i k i e t a a r r a z a k e r i a p r e b e n i t z e k o

Kulturarteko Heziketak, nire ikastetxean egiten denak, hartu-eman, lan laguntzaile eta **partehartzearen** bitartez beste pertsonengandik ikasten uzten digu. Horrela etorkizuneko gizartean esku hartzeko behar izango ditugun balore guztiak ikasten ditugu: errespetua, berdintasuna, gizarte-justizia...

Beste eskualde edo herrialde batekoak direnak edo gureak ez diren beste gaitasunak dituztenen kontrako diskriminazio forma guztiak kentzen lagunduko digute balore horiek guztiak.

Gutako bakoitzak etorkizuneko hiritar arduratsu eta solidarioak izaten ikasteko apustua egiten du nire ikastetxeak.

